

ELKARRIZKETA SOZIALAREN MAHAIKO ENPLEGUKO LANTALDEAREN ERABAKIA

ABEE-EN OSAGARRIEN LAUGARREN LUZAPENA

2021eko urriaren 13ko bileran, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiko Enpleguko Lantaldeak honako hau **ERABAKI DU**, kide guztien adostasunarekin:

LUZATZEA Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak 2020ko ekainaren 18an hartutako erabakia. Horren bidez, osagarriak ezarri ziren aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen zeuden eta urtean hogeita mila euroko (20.000) edo gutxiagoko kotizazio-oinarria zuten langileentzat.

Nola hasierako akordioak hala orain arte Elkarrizketa Sozialaren Mahaian onartutako luzapenek koronabirusaren pandemiaren ondorioz izapidetutako aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEE) –modalitate guztietakoak– arautzen dituen Estatuko araudi bereziak irauten duen bitartean neurri osagarri horri eusteko helburuari erantzuten diote.

Ondorioz, ABEEak 2022ko otsailaren 28ra arte luzatzen dituen 18/2021 Errege Dekretu Legea onartuta, data horretara arte **LUZATU** da, halaber, 2020ko ekainaren 18ko erabakian ezarritako osagarria.

Bilbon, 2021eko urriaren 13an.